




EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOA

(KIROL- ERAKUNDEEI KONTATUA)



ZER DA EUROPAKO ELKARTASUN KIDEGOAA (EEK)?



Europako gazte askok boluntario gisa lan egin nahi dute kausa on batengatik, euren laguntza garrantzitsua izan daitekeen proiektuetan, eta elkartasuna adierazi aukera gutxiago dutenei. Ekimen horiek guztiak bideratzeko, Europako Elkartasun Kidegoa (EEK) eratu da.

Europako Elkartasun Kidegoak aukera ematen die gazteei esperientzia paregabea hartzeko, beren gaitasunak garatzeko eta gizarteari zerbitzua emateko. Boluntariotzako esperientziaren bila dabiltzan gazteentzat,

Europako Elkartasun Kidegoa izan daiteke erantzuna.

Erakundeentzat, Europako Elkartasun Kidegoa gazteak boluntariotzara hurbiltzeko aukera bat da, Herritarren eta gizarte osoaren onurarako balioa duten proiektuak martxan jarri.

Europako Elkartasun Kidegoak bi eta hamabi hilabetearteko boluntariotza-postuak eskaintzen ditu, Europa osoko komunitateetan elkartasuna sustatzeko.

ZER EKARPEN EGITEN DIE KIROL- ERAKUNDEEI?

- »»» EEKren proiektuek eragin positiboa dute parte hartzen duten erakundeetan, tokiko elkarte-sareak aberasten dituzte, eta aukera ematen dute Europako beste kirol-erakunde batzuekin esperientziak trukatzeko.
- »»» EEKn akreditatutako erakundeak Europako Batzordeak aitortutako erakundeak dira, herrialdean bertan eta Europako eta elkartutako gainerako herrialdeetan banakako boluntarioak (kirol-begiraleak, esaterako) hartzeko eta bidaltzeko, eta, orobat, tokiko edo Europako mailan talde-boluntariotzako proiektuak garatzeko; kirol-jarduerak, adibidez.
- »»» EEK-k proiektuaren kostuen %80 finantzatzeko aukera ematen du, diru-laguntza eskatu ondoren.

ZEIN KONPROMISO HARTZEN DUTE EEK-N PARTE HARTZEN DUTEN KIROL- ERAKUNDEEK?

Erakundeek oinarrizko zeregina dute europako elkartasun kidegoan.

Parte hartzen duen erakunde orok, handi edo txiki, EEK-n egiaztatuta egon beharko du, agindua eta Europako Elkartasun Kidegoaren printzipioak sinatu eta Kidegoaren Gutunera atxiki. Gutun horrek dagokion eremuko eta parte-hartzaileen kontratazioaren barruko jarduerak azaltzen ditu.

Harrera erakunde bezala parte hartzen duten erakundeak heltzean formazioa emateaz arduratuko dira, ostataua eta mantentzeaz, tokiko garraioaz, hizkuntza formazioaz, lanerako laguntza eta ikuskaritzaz, eta lortutako gaitasunen laguntza eta egiaztatzeaz.

Laguntza erakunde bezala parte hartzen duten erakundeek (gaztearen egoitza herrialdean) joan aurreko formazioaren ardura izango dute, osasun aseguruia izapidetzearena, bidaiaren eta bisen kudeaketarena, eta proiektuak irauten duen bitartean erreferentzia izango dira edozein arazo edo zalantza izatekotan. era berean, amaierako ebaluazioa egin beharko dute beste herrialdean egonaldia amaitzean



ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

HHerrialde parte-hartzaile edo bazkide bateko **edozein erakunde publiko edo pribatuk** parte har dezake Europako Elkartasun Kidegoan, irabazi-asmoz ala ez

Hasteko, **europako batzordeko egiaztatze zerbitzuan kontu bat sortu behar da.**

Gainera, **erakundeek Europako Elkartasun Kidegoaren Kalitate Zigilua izatea beharrezkoa da.** Zigiluak egiaztatzen du erakunde bat gazteek kalitatezko boluntarioritza jarduerak egiteko baldintza egokiak bermatzeko gai dela, EEK-ren helburuak betez.

NON LOR DEZAKET INFORMAZIOA?

Informazio orokorra: <https://cuerpoeuropeodesolidaridad.injuve.es/es/entidades>



EUROPE DIRECT
Bizkaia

@EuropeDirectBiz
europedirect@edefundazioa.org
www.europedirectbizkaia.org



BizkaiaGara

Eginaz izan - Tiempo de acción

@BizkaiaGara
europa@bizkaiaagara.eu
www.bizkaiaagara.eu/eu